

EUSKADIKO
ORKESTRA



2025-2026 Musika Gelako programazioa

ESKOLA KONTZERTUAK



Interreg
POCTEFA



Cofinanciado por
la UNIÓN EUROPEA
Cofinancé par
l'UNION EUROPÉENNE

Gipuzkoako
Foru Aldundia
Kultura, Lanbide, Gazteria
eta Kirol Departamentua



Diputación Foral
de Gipuzkoa
Departamento de Cultura,
Cooperación, Juventud y Deportes



MUSIKA GELA
25-26

Denboraldi honetarako, Musika Gelatik hiru proposamen prestatu ditugu eskolako publikoarentzat, betiere gure publiko gaztearentzat ahalik eta baldintza onenetan aurkeztutako musikarik onena eskaintzeko asmorekin. **Musika Tantak**, kalitatezko zuzeneko musikaz gozatzeaz gain, aniztasunari buruz sentibilizatzeko aukera eskaintzen digu, gaitasun ezberdinak dituzten musikarien eta gure orkestrako musikarien parte-hartzearen bidez. Txikienentzat, Ravelen unibertsoan murgiltzea proposatzen dugu, Charles Perraulten ipuinak eta itzalen antzerkiaren magia, egungo erreperatorioan funtsezkoa den obra baten musikaren bidez, **Nire ama antzara**, oraingoan zurezko haize-instrumentuzko boskotarako moldaketa batean interpretatua. Apirilean berriz ere **Logelan Logale** iritsiko da, Jagoba Astiazaranen musika eta Leire Bilbaoren libretoa dituen haur kantata, Euskadiko ikastetxeak kantu koralaaren sustapenean inplikatu nahi dituen, Lehen Hezkuntzako ehunka haurrekin batera, parte-hartzailez beteriko kontzertu handi baten bitartez.

Aniztasuna, inklusioa, dibertsioa, kantu korala, emozioa eta berrikuntza dira gazteentzat gure kontzertuen gakoak, eta, horrez gain, musikako irakasleentzako prestakuntzarekin, gure orkestrak Donostiako Kursaalaren egingo dituen doako 3 entsegu irekietara joateko aukerarekin edo euskadikoorkestra.eus webgunean gure bideoez eta argazkiez gozatzeko aukerarekin osatzen dira.

Eskola Kontzertuen programazioaren koadro laburtua

Izenburua	Hezkuntza maila	Datak	Tokia	IRAKASLEENTZAKO TAILERRA	Formazio instrumentala
1.- MUSIKA TANTAK	LH eta DBH	23, 24, 27, 28, 29, 30 2025ko urrian 9:45 -11:15 (2 saio eguneko)	MIRAMONEKO AUDITORIOA Iraupena 55'	2025-09-24 12:00etan MIRAMON Elixabete Arabaolazak zuzendutako tailerra	• biolina • biolontxelo • kontrabaxua • klarineta • perkusioa • pianoa
2.- NIRE AMA ANTZARA	HH	2026 otsailak 11, 12, 13, 16, 17, 18 eta 19 9:45 -11:15 (2 saio eguneko)	MIRAMONEKO AUDITORIOA Iraupena 40'	2025/11/19 12:00etan MIRAMON Marta Bocosek zuzendutako tailerra	ZUREZKO HAIZE BOSKOTEA: • Flauta • Oboea • Klarineta • Trompa • Fagota
3.- LOGELAN LOGALE. KANTATA	LH	2026eko apirilak 21 eta 22 12:00etan	KURSAAL AUDITORIOA Iraupena 55'	2025/11/26 12:00etan MIRAMON Ana Egiazabalek zuzendutako tailerra	• EUSKADIKO ORKESTRA. ZUZENDARITZA: JUANJO OCON • KEPA ERRASTI, ABESLARIA ETA ANTZEZLEA • ESKOLA ABESBATZAK • MUSIKA ORIGINALA: JAGOBA ASTIAZARAN • LIBRETO ORIGINALA: LEIRE BILBAO

I.- MUSIKA TANTAK

- ***Lehen Hezkuntza (hirugarren zikloa) eta Bigarren Hezkuntza (lehen zikloa)***

4 €

6-14
urteEdukiera
340

Ikuskizun hau inklusiboa eta interaktiboa da, batez ere familientzat diseinatua, eta bertan musika, euskal mitologia eta ikusleen partaidetza uztartzen dira. Mari, Mairu eta Galtzagorri bezalako kondairetako pertsonaien eta gaitasun ezberdinak dituzten artisten presentziaren bitartez, unibertso magiko bat sortu dugu, non talentu bakoitzak bere lekua aurkitzen duen aniztasunak guztiok aberasten gaituela erakusteko.

PROYECTO		ESKOLA KONTZERTUAK	IRALASLEEN TAILERRA Derrigorrezkoa
1.-MUSIKA TANTAK Yamel Romero <i>Gidoia eta konposizioa</i> Mikel Cañada <i>Ideia eta zuzendaritza</i> • biolina • biolontxelo • kontrabaxua • klarineta • perkusioa • pianoa Elixabete Arabaolaza <i>Irakasleen Tailerra</i>	Simón Ezquiaga Iñaki Cepas <i>Kantua</i> Alberto Pérez Nora Rodiño Ibai Murillo <i>Aktoreak eta abeslariak</i> Mikel Hernández Beñat Mendizábal Ibai Mendizábal Xabier Solano <i>Dantza</i> Jon Ander López bateria Álvaro Polo <i>Handpan</i>	2025eko urriak 23, 24, 27, 28, 29 eta 30 Auditórium Miramón (Saio bikoitza 9:45etan eta 11:15etan) 12 ESKOLA KONTZERTUAK	2025-09-24 12:00etan Irakasle Tailerra MUSIKA TANTAK Elixabete Arabaolazak gidatutako tailerra Lekua: Miramon Pasealekua, 124, 20014 Donostia, Gipuzkoa

EGITARAU / PROGRAMA

- Y. ROMERO: Canción Galtzagorri eta Mairu /Mendiko musikariak / Mari naiz
- E. GRIEG: Peer Gynt. La mañana
- S. EZQUIAGA & Y. ROMERO: Musika munduan
- C. SAINT-SAËNS: Carnaval de los animales. Fósiles
- W. A. MOZART: Serenata nº13
- C. SAINT-SAËNS: Carnaval de los animales. El cisne
- HERRIKOIA / POPULAR & I. CEPAS: Tarantella. Napoletana. Pizza Project
- C. SAINT-SAËNS: Carnaval de los animales. El elefante
- Y. ROMERO: Handpan magikoak
- V. HORTON: Xalala riki riki
- S. EZQUIAGA & Y. ROMERO: Diversidad relativa
- Y. ROMERO: Kolore-tanten dantza /Ni naiz eta zu zara

II.- NIRE AMA ANTZARA

HAUR HEZKUNTZA



2026an Maurice Ravelen jaiotzaren 150. urteurrena ospatuko dugu. Ziburutarrak *Ma mère / 'oye* lana lagun batzuen seme-alabentzat idatzi zuen "Haurrentzako bost pieza" azpтитuluarekin eta Charles Perrault idazle frantsesaren ipuin batzuetan oinarritzen da. Elementu horietatik abiatuta, gure proposamenak hitzen ordeztu irudiak jarriko ditu zuzeneko musikaz osatuko den itzal-antzerki batean, eta entzulearen (haur bakoitzaren) esku utziko du kontakizuna norberaren iruditerian berreraikitzeke lana. Gure orkestrako musikariek, flauta, oboe, klarinete, tronpa eta fagotez osatutako haize-boskote formazioan, jatorrian lau eskuz pianoan jotzeko idatzitako (bertsio sinfonikoan ere ohikoa da orkestren programazioetan) lan bikain eta eder honi bizia emango diote.

PROIEKTUAK	ESKOLA KONTZERTUAK	IRAKASLEEN TAILERRA Derrigorrezkoa
2.- NIRE AMA ANTZARA Idea: Mikel Cañada - Musika Gela Gidoia eta itzalen antzerkia: Marta Bocos Egurrezko haize boskotea: • Flauta • Oboea • Klarinetea • Fagota • Trompa	2026eko otsailak 11, 12, 13, 16, 17, 18 eta 19 Auditórium Miramón Saio bikoitza, 9:45etan eta 11:15etan	2025 – 11 – 19 12:00etan Irakasleen tailerra NIRE AMA ANTZARA Marta Bocosek gidatutako tailerra Lekua: Miramon Pasealekua, 124, 20014 Donostia, Gipuzkoa
EGITARAUA : MA MÈRE L'OYE, de Maurice Ravel • <i>Pavane de la Belle au bois dormant</i> • II. <i>Petit Poucet</i> • III. <i>Laideronnette, Impératrice des pagodes</i> • IV. <i>Les entretiens de la Belle et de la Bête</i> • V. <i>Le jardin féerique</i>		

III.- LOGELAN LOGALE.

LEHEN HEZKUNTZA

(Dokumentu honetan publiko gisa joan nahi duten ikastetxeei soilik jakinarazten zaie, eta ez orkestrarekin batera abestuko duten parte-hartzaileei, nahiz eta ikastetxe batzuk bi egoeretan egon daitezkeen, eskola-abesbatza gisa parte hartzen duten eta publiko gisa parte hartzen duten).



Non dago errealitatea eta ametsaren arteko muga? Ze denbora eta pisu hartzen dute ametsak gure egunerokoan? Lo gaudenean eta esna gaudenean egiten ditugun ametsak leku berera doaz? Protagonista bere ohean sartzen da eta saiatzen den arren ezin da lokartu. Egunari errepassoa egiten dio eta nekatuegi sentitzen da bere gorputza eta burua loari emateko.

Doinu eta kantu ezberdinen bidez kontatu eta kantuko dugu, gutako bakoitzak ohera joaten den unetik eta esnatu arteko istorioa. Lo eta ametsaren fantasiari, bakoitzak bere doinua jartzeko, lo gaudenean ere abenturak bizi ditugulako.

	PROIEKTUA	ESKOLA KONTZERTUAK	IRAKASLEEN TAILERRA Derrigorrezkoa
III.- LOGELAN LOGALE (kantata) • EUSKADIKO ORKESTRA. ZUZENDARIA: JUANJO OCON • KEPA ERRASTI, ABESLARIA ETA ANTZEZLEA • ESKOLA ABESBATZAK + ABESBATZA PILOTOA • ESZENA ZUZENDARIA: MARÍA GOIRICELAYA • MUSIKA ORIGINALA: JAGOBA ASTIAZARAN / LIBRETO ORIGINALA: LEIRE BILBAO		2026eko apirilak 21, asteartea, eta 22, asteazkena. 12:00etan Auditorio Kursaal	2025/11/26 12:00etan Irakasle Tailerra Ana Egiazabalek gidatutako tailerra Lekua: Miramon Pasealekua, 124, 20014 Donostia, Gipuzkoa
EGITARAUA 0. Prelude 1. Kask-kask 2. Gauaren beltza 3. Oheko burkoa 4. Gaueko 5. Harri, orri, ar		6. Mamua ote da? 7. Nire itzala 8. Hitz jolasak 9. Ispiluaren aurreko kanta 10. Logelan logale	

ENTSEGU IREKIAK



Musika Ikaslegoa / Lehen eta Bigarren Hezkuntzako eta Batxilergoko ikasleak, beste kolektiboak eta HHE

DATA	ORDUA	ZUZENDARIA	PROGRAMA	TOKIA
2026.01.12 Astelehena	11:00 – 12:00	JAIME MARTIN Zuzendaria	Sinfonía No.4 en mi menor, Op.98 J. BRAHMS	KURSAAL AUDITORIOA
2026.01.26 Astelehena	11:00 – 12:00	ANA MARÍA PATIÑO Zuzendaria	Cuadros de una exposición MUSSORGSKY	KURSAAL AUDITORIOA
2026.05.22 Ostirala	11:00 – 12:00	FRANÇOIS LÓPEZ-FERRER Zuzendaria	El sueño de una noche de verano, Op.21 & 61 MENDELSSOHN	KURSAAL AUDITORIOA

Informazio gehiago eskatu, ekarpenen bat egin edo gure proposamenetariko batean parte hartzeko, jar zaitez Euskadiko Orkestraren Hezkuntza Departamentuarekin harremanetan:

Mikel Cañada

musikagela@euskadikoorkestra.eus

euskadikoorkestra.eus



**Interreg
POCTEFA**



Cofinanciado por
la UNIÓN EUROPEA
Cofinancé par
l'UNION EUROPÉENNE